

Elkartasunaren hobariak

Euskaldunon Egunkaria, 1999-06-14: 3.

Txikitandik erakutsi digute, eta alegi bide sakonetik, gure herriak duen elkartasun beharra. Behin aita batek bildu omen zituen haserre zebiltzan bere seme-alabatxoak eta esan ziren: "Arbastak banan bana erraz puskatzen dira, baina eskubeteka arbastaz osatutako sorta, ez du indartsuenak ere apurtuko". Zentzu berean Agirre Lehendakariari behin eta berriz entzun nion bere adibide klasikoan Erasmo eta Lutero aurrez aurre jartzen gure batasun beharra erakusteko: Ez genituela, gure auzi politikoetan, Luteroren bide apurtzaileak erabili behar, baizik eta Erasmoren arrazoizko eta baikorrak. Askotan dator nire gogora Euskal Herriko une bateratu eta leial hau nola bizi izango zuen Agirrek; bizi balitz. Eta pentsatzen dut nolabait berak ere bizi duela gogoz, zeren gaur egiten ari garen ahalegin handia ez dela berez bezala sortu eta heldu, euskal politikaren serbitzuan eskola euskaldun baten ondorioa ere badela. Egunen batean perspektiba hobearekin batean neurtuko dugula haria; Karlistetatik abiatu Sabin eta Luis Aranarekin herri honetan Euskadi berria lehertzen da, Agirrek irekitzen du aro politiko berri bat; zentzu ernegarria duen guda ideologikoan hiltzen dira gudariak banaka, ez kolektiboki; sinbolo berri dira Durango eta Gernikan, sinbolo bizi; Ajuriagerrak badu berezia den zerbait Santoñan; Kanpion eta Irujo nafarrek asko esaten dute, Landaburu berritzaileak ere bai, Monzon klabea da, eta gertuagoxio Arzalluz eta Garaikoetxea, aldi berri eta leiala, noski, eta Santi Brouard berriagoa, eta Argala, Peixoto, hemendik dator haria. Beste asko aipatu behar nituen aurretik. Eta aipatu ditudanak batera momentu honetan gogora eta goratu behar nituen, eta etorri ez zaizkidan beste asko, denen artean egin baitute Euskal Herriaren aldeko bide luze, mingarri, triste, espetzez eta heriotzaz gainezkatua. Zer dakite gure arerio izatera itxi diren gaurko Espainiako agintariek nondik nora etorri den herri honen min handia, gure Herriaren garrasia!